

AZTERKETARIAREN EGITEKOA: 2. MAILA

Ahozko azterketa

Epaimahaikoen aurrean egin beharreko ariketak

1. ZATIA. Aztertzaileen galderak
2. ZATIA. Gaia garatu
3. ZATIA. Bat-bateko elkarrizketa

(minutu 1/1,
ikasleko)

(3:30/3:30,
ikasleko)

(2:30/2:30,
ikasleko)

**Guztira 15 bat
minutu
(bikoteko)**

Gaia prestatzeko denbora:

10 minutu inguru dituzu gaia prestatzeko.

Amaitzen duzunean, itxaron aztertzaileek deitu arte.

Prestatu behar duzun gaia:

36. gaia: Zer egin eskolan amaitu ondoren?



Egoera

Egungo umeez ez dute ia jolasteko aukerarik izaten: askotan, eskola amaitu ondoren, eskolaz kanpoko ekintza ugari egin behar izaten dute.

Egitekoa

Esan, zure ustez, eskolan ikasten dutena nahikoa izaten den umeez maila oneko heziketa jasotzeko. Aderazi zein helburu izan behar duten eskolaz kanpoko ekintzek. Azaldu nork erabaki behar duen, zure ustez, zein eta zenbat ekintza egin.

Gogoratu 2 minutu inguru duzula hitz egiteko.

Amaieran, aztertzaileak beste azterketariari galderaren bat egingo dio zure gaiaz, eta hark bere azalpena bukatzen duenean, zuri galdetuko dizu.

EZ IDATZI EZER ORRI HONETAN



Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

2. MAILA

3. ZATIA

BAT-BATEKO ELKARRIZKETA

Materiala eman (argazkien orria).

- Ikasleei fitxak eman eta zer egin behar duten azaldu (elkarri begira egongo dira eta irakaslea pixka bat atzerago jarriko da).
- Fitxak aurrean ditzuztela, minutu erdi bat utzi pixka bat pentsatzeko.

Ikasleek jardun bitartean.

- Ikasleei egiten utzi, baina hizketan pasatzen duten denbora neurtu.
- Beharrezkoa bada, esku hartu, moztu, txanda aldatu.
- Behar izanez gero, beheko galdera osagarriak balia ditzakezu.

36. ARGAZKIA:

Zer egin eskolan amaitu ondoren? Hiru aukeratu.

Fitxan gaur egungo umeek eskolan amaitzean egiten dituzten zenbait ekintzen argazkiak ageri dira. Zuen inguruko ume batentzat **hiru ekintza aukeratu** beharko bazenituzte zeintzuk aukeratuko zenituzkete? Zergatik? Zuen iritzia eman, bakoitzak berea. Ondoren **eztabaidatu eta adosten saiatu**.

GALDERA OSAGARRIAK

- Ikasketetan hobetzen lagundu ala alderdi ludikoa sustatu behar dute eskolaz kanpoko ekintzek?
- Musika, hizkuntzak, kirolak ... behar bezala lantzen dira eskolan?
- Batzuen ustez, jarduera horiek zenbaitetan "umeak aparkatzeko" modu bat izaten dira. Zein da zuen iritzia?



Zein egin eskolan amaitu ondoren? Hiru aukeratu.

